## EAEko ikaslani atxikitutako zentruak




**ARABA**
1- Aniturri (Agurain)
2- Zaraobe (Amurrio)
3- Eraikuntz In. (Gaste)
4- Samaniego (Biasteri)
5- Canciller Ayala-Gragorio Maraño(Laud)
6- Murgia BHI
7- Ciudad jardin(Gastei)
8- Host.Gamarra(Gaste)
9- Mendizabala (Gaste)
10- Francisco de Vitoria (Gasteiz)

**BIZKAIA**
1- Minas (Barakaldo)
2- Nicolas Larburu (Barakaldo)
3- Bidebieta(Basauri)
4- I.Arozena-Barrutia (Bermeo)
5- Olorrieta-Erreka Mari (Bilbo)
6- Emilio Campuzano(Bilbo)
7- Escurce (Bilbo)
8- Txurdinaga (Bilbo)
9- Ategorri (Erandio)
10- Andra Mari(Galdak)
11- Fadura (Getxo)
12- Iurreta
13- Ostalaritza (Leioa)
14- Mungia BHI
15- Errepelaga (Portug)
16- Eraikuntza(Santurt)
17- San Jorge(Santurt)
18- Saturnino de la Peña (Sestao)
19- Urritxe-Zornotza
20- Ondarroa-Lekeitio
21- Barrutialde (Arratzu)

**GIPUZKOA**
1- Arrasate-Aretxabaleta
2- Urola ikastola BHI (Azkoitia-Azpeitia)
3- Miguel Altuna (Bergara)
4- Eraikuntza insti.Altza (Donostia)
5- Easo (Donostia)
6- Zubiri (Donostia)
7- Martutene (Donostia)
8- Armeria eskola (Eibar)
9- Uni Eibar-Ermua
10- Elgoibar BHI
11- Makina-Erreminta (Elgoibar)
12- Hernani Institutua Iturriaga-Labaka (Hernani)
13- Bidasoa (Irun)
14- Plaiaundi (Irun)
15- Lasarte-Usurbil BHI (Lasarte)
16- Olazabal (Legazpi)
17- Mutrikuko institutua
18- Zuazola-Larraña. (Oñati)
19- Don Bosco (Errenteria)
20- Zamalbide(Errenteria)
21- Paper eskola (Tolosa)
22- Tolosaldea (Tolosa)
23- Usurbil
24- Monte Albertia (Zarautz)
25- Zumaiako institutua

bliko dira Ikaslanen partaide, 10 ikastetxe daude Araban, Gipuzkoan 21 eta Bizkaian 25.

Ikaslanen baitan dauden ikastetxeetan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergo ikasketak (bere baitan Teknologikoa, Giza eta Gizarte Zientziak eta Natur eta Osasun Zientziak egiteko aukera du ikasleak) eta Lanbide Heziketa (Erdi Mailako nahiz Goi Mailako Heziketak Zikloak) egiteko aukera ematen dute. Ikastetxe batzuk beste batzuk baino eskaintza murritzagoa dute eta, hala, zenbait kasutan DBH edo Batxilergoa egiteko aukerarik ez dago.

### Espezialitate ugari

Dena den, gehiengoak Batxilergoa nahiz Lanbide Heziketa ematen dute. Lanbide Heziketaren baitan ikasleak bere ikasketak egiteko bide edo arlo ugari ditu aukeran. Erdi Mailako Heziketa Zikloen barruan, batzuk aipatze arren, honako hauek egongo lirateke: soldadura edo galdaragintza, ibilgailuen elektromekanika, administrazioa, kontsumorako ekipo elektronikoak, eraikuntza akaberak. Eremu oso zabala da eta ikastetxe bakoitzak bere eskaintzak egiten ditu.

Goi Mailako Heziketa Zikloetan ere eskaintza ezin oparoagoa da eta espezialitate anitz daude ikasleen eskura. Besteak beste, proiektu mekanikoen garapena, plastiko eta kautxua, merkataritza kudeaketa eta marketinga, haur hezkuntza, gizarte eta kultur animazioa eta errestaurazioa bezalak ikasketak egin daitezke.

Guztira Gipuzkoan 55 espezialitate inguru eskaintzen dira, Bizkaian 59tik gora eta Araban 34tik gora.

> **Gipuzkoan 55 espezialitate eskaintzen dira, Bizkaian 59 eta Araban 34tik gora**

Ikaslanen elkarturiko ikastetxeetan ematen diren espezialitate guztiak maila tekniko handia dutela eta irakaskuntza publikoaren bermea dutela ziurtatzen dute arduradunek.

Logse lege berriaren arabera Goi Mailako Zikloak egiteko ezinbestekoa da Batxilergoa gainditzea. Horregatik, Jose Mari Elola Ikaslan-Gipuzkoako Lehendakariaren ustez, «ikasketa teknikoak egin nahi dituen ikaslearentzat bide zuzen eta logikoena Batxilergoa egin ondoren Goi Mailako Heziketa Zikloak egitea da, prestakuntza tekniko ona jaso eta gero nahi badu unibertsitatera joateko».

> **Ikasleak moduluko 345 ordu sartuko ditu enpresetan praktikak egiten**

### Irtenbide oparoa

Goi Mailako Zikloak bi urteko iraupena izaten dute eta modulu ezberdinetan banatuak daude. Modulu guztietan prestakuntza teoriko eta praktikoa jasotzen dute. Horrez gain, ikasleak moduluko 345 ordu sartuko ditu enpresetan praktikak egiten. Modu horretan bere prestakuntzaren zati bat enpresetan egiteko aukera eskaintzen da, lan mundua gertuagotik ezagutzeko asmoz.

Lanbide Heziketak irtenbide oparoak ditu, titulua eskuratzen duten hamar ikasleetatik zortzik lana topatzen baitute. Jose Mari Elola Ikaslaneko Lehendakariak dionez, «Goi Mailako Zikloak gainditzen dituzten ikasle gehienak lan egokia dute». Gainera enpresen beharrei aurre egin ezinik daudela ziurtatzen digu Elolak, «enpresetan goi mailako teknikarien beharra izugarria da, eta gure ikastetxeetan amaitzen duten ikasle kopurua ez da nahiko enpresek dituzten beharrak asetzeko».

Goi Mailako ikasketak amaitzean, lanera joan ordez ikasten jarraitzeko aukera ere badu ikasleak. Hala, nahi izanez gero, Goi Mailako Hezkuntza Ziklotik Unibertsitateko edozein karrera egiteko irtenbidea ere aukeran du.

Eibarko Hizkuntza Eskola Ofiziala
(Titulu Ofizialak)
· Euskara* · Frantsesa · Ingelesa
Klaseak goizez eta arratsaldez
Hizkuntzak ikasteko erarik merkeena
Jardiñeta 3, BIS 20600 EIBAR
Tel.: 943 20 06 18/48 • Faxa: 943 20 06 78
e-mail: eibar@eeooii.net
*EGA eta Administrazio hizkuntz eskakizunekin konbalidatua.

"URRITXE-ZORNOTZA"
Bigarren Hezkuntzako Institutua
✓ D.B.H.
✓ Batxilergoak (Hiru modalitateak)
✓ Heziketa Zikloak
Erdi mailakoak
- Erizaintzako laguntza osagarriak
- Merkataritza
- Elektromekanika
Goi mailakoak
- Aplikazio informatikoen garapena
- Nazio arteko merkataritza
- Ekipo industrialen mantendua
Informatikako gelak, laboratorioak, liburutegia, tailerrak, kirol instalazioak,... Jantokia eta eskola-garraioa dadauzkagu ere.
Urritxe auzunea, z/g 48340 AMOREBIETA (Bizkaia)
Tel.: 94 673 02 51 / 20 12 Faxa: 94 673 02 51
www.educanet.net/zornotza • e-mail: info@urritxe.educanet.net

Euskal herriko areto guztietako filmak
Estreinaldiak
Kritikak
www.Egunkaria.com/zinema

TALAIA
GIRO EUSKALDUNA
BH Institutua
HONDARRIBIA
☎ 943 64 20 48
DBH / ESO D ereduan
BATXILERGOAK Hizkuntza eredu guztietan
ZIENTZIA eta TEKNIKA BIDEA
OSASUN ZIENTZIEN BIDEA
GIZA ZIENTZIEN BIDEA
GIZARTE ZIENTZIEN BIDEA
GORPUTZ ETA KIROL EKINTZAK ERDI MAILAKO ZIKLOA:
GORPUTZ ETA KIROL EKINTZEN GIDARITZA
OSTALARITZA ETA TURISMOA GOI MAILAKO ZIKLOA:
INFORMAZIO ETA MERKATURATZE TURISTIKOA
Nora joateko?
UNIBERTSITATEKO KARRERA GUZTIETARA: Ingeniaritzak, Ingeniaritza Teknikoak, Arkitektura, Fisioterapia, Enpresa-Zientziak...
GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLO GEHIENETARA: Ostalaritza eta Turismoa, Informatika, Arte grafikoak, Osasungintza, Kimika...